



*Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la **Violencia**
Machista en Bizkaia*

TXOSTENA

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
MATXISTAKO EGOERETAN**

EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

OSASUNAREN ARLOA

2023



4. kapitulua.

OSASUN-ARLOA

Testuingurua eta egoera orokorra

Osasun-zerbitzuetan, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da Estatuko oinarrizko legeria exekutatzea, osasun publikoko eta osasun-laguntzako legegintza garatzea, eta autonomia-estatutuan bere gain hartutako osasun-zerbitzu guztiak antolatu eta administratzea; izan ere, Lurralde Historikoen Legeak (LHL) ez die eskumenik esleitzen lurralde historikoetako foru-organoei.

Osasun-arretaren eremua funtsezko arloa da hautemateko eta arreta emateko, bai eta biktima diren emakumeen osasun integrala hobetzeko ere. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko legeak **–Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea**, 1/2022 Legearen 1. artikuluan ezartzen denez– honela dio 55. artikuluan 1. atalean: *“Euskadiko Osasun Sistemak emakumeen aurkako edozein indarkeria-motaren biktima guztiei bermatu behar die osasuna babesteko eta osasun-arreta izateko duten eskubidea; barnean sartzen da indarkeria-egoerak detektatzea eta biktimen egoerari jarraipena egitea, guztiz oneratzen den arte, jasandako indarkeriatik datozen ondorioei edo sintomatologiari dagokienez, edozein dela ere biktimaren administrazio-egoera”*. Gainera, artikuluko bereko 3. atalean ezartzen denez, *“arreta psikologiko espezializatua bermatuko die emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktima izan diren guztiei, arlo soziosanitarioan eta genero-ikuspegian oinarrituta”*.

EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioan jasotzen denez, *“gaur egun, Osakidetzan hau da erreferentziazko protokoloa: 2019ko Jarduketa-gida osasun-arloko profesionalentzat, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko”*. Gida honen helburua da *“osasun-arloko langileak sentsibilizatzea, gure testuinguruan genero-indarkeriako kasuak goiz hautematen inplikatzuz, eta esku-hartze profesionaleko irizpideak homogeneizatzen lagunduko duen lan-tresna bat ezartzea osasun-arlotik”*.

Kapitulu honetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak emandako zenbait datu aurkezten dira. Zehazki, 2022an eta 2023an Bizkaiko osasun-barrutiko **Ospitaleko eta Larrialdietako Arretan** eta **Lehen Mailako Arretan** (LMA) hautemandako genero-indarkeriako kasuei buruzkoak. **14 urte eta gehiagoko emakumeen** kasuak dira.

4.1. OSPITALEKO ARRETA

2021etik aurrera, kapitulu honetan erakusten diren datuek, ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuetan hautemandako kasuei buruzko informazioa emateaz gain, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Bizkaiko ospitaleetako beste kontsulta batzuetan artatutako kasuak ere jasotzen dituzte.

2023an, zerbitzu horiek 640 kasu hauteman zituzten Bizkaian. 2022ko datuekin alderatuta, hautemate-bolumena % 23,1 igo zen, hau da, aurreko ekitaldian baino 120 kasu gehiago hauteman ziren. Aurreko ekitaldietan gertatzen den bezala, nabarmentzekoa da Bizkaian artatutako kasuek EAE osoan duten pisua: 2023an, kasuen % 62 BLHn hauteman ziren.

Ospitale-eremu horretan hautemandako kasu gehienak Larrialdi Zerbitzuetan emandako arretari dagozkio (% 95), % 3,1 ospitaleetako beste zerbitzu batzuetan emandako arretarekin lotuta daude, hala nola kanpo-kontsultak, eta % 1,9 Osasun Mentaleko Sarean artatutakoak dira.

Larrialdi Zerbitzuetan hautemandako kasuei erreparatuz gero, hautemate-bolumena % 24,8 igo zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, 121 kasu gehiago identifikatu ziren, aztertutako denbora-tarteko (2013-2023) zifrarik altuena.

**4.1. taula. Larrialdietan hautemandako kasuak, erakunde sanitarioaren arabera.
BLH. 2022-2023**

	2022	2023	Δ
Barakaldo-Sestaoko ESI	95	119	+25,3
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI	89	90	+1,1
Barrualde-Galdakaoko ESI	52	88	+69,2
Bilbo-Basurtuko ESI	227	277	+22,0
Uribeko ESI	24	30	+25,0
GUZTIRA*	487	608	+24,8

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Barakaldo-Sestaoko ESIak San Eloy Ospitalea barne hartzen du; Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIak Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Barrualde-Galdakaoko ESIak Gernika-Lumoko Ospitalea eta Galdakao-Usansoloko Ospitalea barne hartzen ditu; Bilbo-Basurtuko ESIak Basurtuko Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Uribeko ESIak Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea barne hartzen du. Santa Marina Ospitalea ez dago ESI baten barruan.

*2023ko lau kasu Santa Marina Ospitalean hauteman ziren (erakunde sanitario baten barruan ez dagoen ospitalea).

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Erakunde sanitarioen arabera, Barrualde-Galdakaoko ESIan % 69,2 handitu zela hautematea, hots, aurreko ekitaldian baino 36 kasu gehiago hauteman ziren. Barakaldo-Sestaoko eta Bilbo-Basurtuko ESletan ere gora egin zuten hautemateek; % 25,3 eta % 22, hurrenez hurren. Uribeko ESlari buruzko datuek erakusten dute sei kasu gehiago hauteman zirela, eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan, berriz, bat gehiago. Bestalde, Santa Marina Ospitalean lau kasu artatu ziren.


Erakunde sanitarioen araberrako kasu-banaketak erakusten duenez, Bilbo-Basurtuko ESlak dauka ehunekorik handiena, gainerako erakundeekin alderatuta. Hala ere, bilakaera-azterketak erakusten du ehuneko horrek behera egin duela urteetan zehar: 2023an, Larrialdi Zerbitzuetan hautemandako kasuen % 45,6 erakunde sanitario horri dagozkio. Ehuneko hori % 69,3koa zen 2013an; 24 puntuko aldea, beraz.

4.2. taula. Larrialdietan hautemandako kasuen banaketa (%), erakunde sanitarioaren arabera.
BLH. 2013 eta 2023 urteen arteko bilakaera

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Barakaldo-Sestaoko ESI	13,8	22,5	19,1	21,0	25,6	14,2	15,1	15,5	18,4	19,5	19,6
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI	9,5	12,0	6,7	8,0	8,4	9,4	9,4	12,2	19,1	18,3	14,8
Barrualde-Galdakaoko ESI	7,4	4,7	7,5	7,0	8,1	7,4	9,7	11,8	11,5	10,7	14,5
Bilbo-Basurtuko ESI	69,3	60,8	66,7	64,0	55,6	61,0	59,8	53,9	44,1	46,6	45,6
Uribeko ESI*	-	-	-	-	2,3	8,0	5,9	6,6	6,7	4,9	4,9

*Uribeko ESiko ospitaleak 2017ko maiatzean ireki zuen Larrialdi Zerbitzua.

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Barakaldo-Sestaoko ESlak San Eloy Ospitalea barne hartzen du; Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlak Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Barrualde-Galdakaoko ESlak Gernika-Lumoko Ospitalea eta Galdakao-Usansoloko Ospitalea barne hartzen ditu; Bilbo-Basurtuko ESlak Basurtuko Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Uribeko ESlak Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea barne hartzen du.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Adina

2023an, ospitaleetako larrialdi-eremuan hautemandako kasuetako asko **40 urte baino gutxiagoko emakumeei dagozkie (% 62,7)**: 14 eta 19 urte arteko gazteei kasuen % 5,8 dagozkie; 20 eta 29 urte arteko emakumeei kasuen % 26,8 dagozkie, eta 30 eta 39 urte arteko emakumeei, aldiz, kasuen % 30,3.

Arretarako beste eremu batzuetan gertatzen den bezala, larrialdietako osasun-erregistroek 50 urtetik gorako emakumeen presentzia urria islatzen dute, gainerako adin-taldeekin alderatuta: adin horretako emakumeek pisu handia dute biztanleria osoan (% 48,2), baina Bizkaiko Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuen bidez hautemandako kasuen % 15 dira soilik adin horretakoak.

Aurreko urtearekin alderatuta, adin-taldearen arabera, 20 eta 39 urte arteko emakumeen kasuetan ikusten da aldaketarik esanguratsuenak. 20-29 urteko adin-tartean, hautematea % 21,6 handitu zen (2022an baino 29 kasu gehiago), eta 30-39 urtekoetan, berriz, % 30,5 igo zen (43 kasu gehiago zenbatu ziren).

4.3. taula. Larrialdietan hautemandako kasuak, adinaren arabera. BLH. 2022-2023

	2022	2023	Δ
14-19 urte	33	35	+6,1
20-29 urte	134	163	+21,6
30-39 urte	141	184	+30,5
40-49 urte	115	135	+17,4
50-59 urte	35	60	+71,4
60-69 urte	13	11	-15,4
70 urte edo gehiago	16	20	+25,0
GUZTIRA	487	608	+24,8


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Talde bakoitzeko kasu-kopurua eta adin horietako emakumeen guztizko biztanleria alderatuta, ikus daiteke 20-39 urte arteko emakumeek dituztela biktima-tasarik altuenak. Zehazki, 20-29 urteko adin-tartean 32,3 kasu daude 10.000 emakumeko, eta 30-39 urteko adin-tartean, 31,6 kasu 10.000 emakumeko.

40 urtetik aurrera, emakumeen adinak gora egin ahala, tasak behera egiten du etengabe, modu nabarmenean.



4.2 grafikoa. Larrialdietan detektatutako kasuak adin-taldean arabera. 10.000 emakumeko tasa. Bizkaia. 2023



Oharra: tasa kalkulatzeko, 14 urte edo gehiagoko emakumeak hartu dira kontuan, EINen 2023ko urtarilaren 1eko datuetan oinarrituta.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

4.2. LEHEN MAILAKO ARRETA (LMA)

2023an, genero-indarkeriarekin lotutako 583 kasu hauteman ziren. Aurreko urtean baino % 30,7 gehiago, aztertutako denbora-tarteko zifrarik altuena erregistratu zen.

EAE osoan 1.023 kasu hauteman ziren. Esparru honetan ere, nabarmendu behar dugu EAEko guztizko kasu-kopuruaren zati nabarmen bat Bizkaian artatutako kasuei dagokielako. Hain zuzen, EAEn hautemandako kasuen guztizko kopuruaren % 57 Bizkaian gertatu zen.

Datuak erakunde sanitarioen arabera bereizita, hazkunderik handiena Uribeko ESIan ikusten da, 2022an baino 40 kasu gehiago artatu baitziren. Bilbo-Basurtuko eta Barrualde-Galdakaoko ESIetan ere, gorakada handiak erakusten dituzte datuek: lehen kasuan % 34,4 (32 kasu gehiago), eta Barrualde-Galdakaon % 24,5 (47 kasu gehiago). Barakaldo-Sestaoko ESIan, 2022an baino 15 kasu gehiago zenbatu ziren, eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan, hiru gehiago.

4.4. taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak, erakunde sanitarioaren arabera.
BLH. 2022-2023

	2022	2023	Δ
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI	74	77	+4,1
Uribeko ESI	68	108	+58,8
Barakaldo-Sestaoko ESI	19	34	+78,9
Barrualde-Galdakaoko ESI	192	239	+24,5
Bilbo-Basurtuko ESI	93	125	+34,4
GUZTIRA	446	583	+30,7

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.


Larrialdi-eremuan gertatzen denaren kontra, azken urteetan **Barrualde-Galdakaoko ESIan** hauteman dira kasu gehien: 2023an, Bizkaiko Lehen Mailako Arretan hauteman ziren kasu guztien % 41 ESI horretan artatu ziren.

Kasuen bilakaera-azterketari esker, halaber, ikus daiteke 2020ra arte Bilbo-Basurtuko ESIak bigarren erakunde gisa, eta aldearekin, eusten bazion ere hautemandako kasuen bolumenari dagokionez, azken urte hauetan, Uribeko ESIko arreta-igoerarekin, bi erakundeek antzeko proportzioak dituztela: kasuen % 21,4 Bilbo-Basurtuko ESIan, eta % 18,5 Uribeko ESIan.

4.5. taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak (%), erakunde sanitarioaren arabera.
BLH. 2013 eta 2023 urteen arteko bilakaera

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI	5,3	6,7	3,0	5,0	10,6	9,7	9,2	12,2	17,7	16,6	13,2
Uribeko ESI	12,3	13,0	16,5	11,9	10,6	9,0	12,6	13,3	16,2	15,2	18,5
Barakaldo-Sestaoko ESI	9,4	11,8	11,9	9,4	11,0	6,8	5,5	7,1	5,1	4,3	5,8
Barrualde-Galdakaoko ESI	37,3	41,7	46,6	53,2	47,5	50,7	51,2	41,3	40,7	43,0	41,0
Bilbo-Basurtuko ESI	35,7	26,8	22,0	20,5	20,4	23,7	21,5	26,0	20,4	20,9	21,4

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

10.000 emakumeko hauteman diren kasuen tasa

Erakunde Sanitario Integratu bakoitzean hautemandako kasuak eta gunee horietako emakumeen guztizko biztanleria lotzen baditugu, ikus daiteke Barrualde-Galdakaoko ESIan hauteman direla kasu gehien.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, erakunde sanitario horrek (15,3 kasu 10.000 emakumeko) lurralde osoko balioaren gainetik dagoen tasa dauka (9,6 kasu 10.000 emakumeko). Uribeko ESIak (9,4) eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIak (9,2) BLHren antzeko tasak dauzkate. Bestalde, Bilbo-Basurtuko eta Barakaldo-Sestaoko ESIek dauzkate tasarik baxuenak.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Adina

Adin-taldeka, Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuen % 48,4 **30 eta 49** urte arteko emakumeei dagozkie.

Aurreko ekitaldietako datuen azterketetan adierazi den moduan, beste baliabide batzuetan ez bezala, Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuen adin-kurbak **50 urtetik gorako** emakumeak agerian jartzeko aukera ematen du, beste arreta-esparru batzuetan baino gehiago, osasun-arloak izan ala ez.

50 urtetik gorako emakumeen kasuek behera egin badute ere azken urteetan, 2023an 4 puntuko igoera erakusten dute datuek, **kasuen % 27,8**. Kontsulta horietan adin aurreratueneko kasuak ere agertzen dira, 70 urte eta gehiagokoak (% 8,7).

Datuak aurreko ekitaldian erregistratutakoekin alderatzean, zifrek erakusten dute igoera handia izan dela adin-tarte guztietan, 14 eta 19 urte arteko tartean izan ezik, egonkor eutsi baitio (2022an baino kasu bat gehiago zenbatu da). Zehazki, 70 urteko eta 70 urtetik gorako emakumeen tarteak hazkunde esanguratsua izan du: hautematea % 70 hazi da, hau da, 21 kasu gehiago hauteman dira.


4.6. taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak, adinaren arabera.
BLH. 2022-2023

	2022	2023	Δ
14-19 urte	31	32	+3,2
20-29 urte	91	107	+17,6
30-39 urte	121	147	+21,5
40-49 urte	97	135	+39,2
50-59 urte	51	75	+47,1
60-69 urte	25	36	+44,0
70 urte edo gehiago	30	51	+70,0
Guztira	446	583	+30,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.

Lehen Mailako Arretan, biktimen tasak eta emakumeen guztizko biztanleria alderatuta, ikus daiteke **30-39 urte** arteko emakumeek daukatela biktima-tasarik altuena (23,8 kasu 10.000 emakumeko), eta, haien atzetik, 20-29 urte arteko emakumeek (20,3 kasu 10.000 emakumeko).

Ospitaleetako Larrialdi Zerbitzuetan gertatzen den bezala, Lehen Mailako Arretan ere tasak jaitsi egiten dira 40 urtetik aurrera. Baina, konparatiboki, 60 eta 69 urte arteko, 70 urteko eta 70 urtetik gorako adin-tarteei dagozkien tasak Larrialdi Zerbitzuan erregistratutakoak halako bi dira.



Oharra: tasa kalkulatzeko, 14 urte edo gehiagoko emakumeak hartu dira kontuan, EInen 2023ko urtarilaren 1eko datuetan oinarrituta.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila.



ERANSKINAK:

- Datuen taulak.
-



IV. Arloa: OSASUNEKOA

OSPITALEKO ARRETAREN DATUAK

1. taula. Ospitaleko arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte) zerbitzuaren arabera. Bizkaia. 2023.

2. taula. Larrialdietan detektatutako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte). Bizkaia. 2023.

2.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

2.2. Adinaren arabera

LEHEN MAILAKO ARRETAREN DATUAK

3. taula. Lehen Mailako Arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte). Bizkaia. 2023.

3.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

3.2. Adinaren arabera



IV. Arloa: OSASUNEKOA

I. OSPITALEKO ARRETAREN datuak

1. taula. Ospitaleko arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte) zerbitzuaren arabera. Bizkaia. 2023.

	2023
Larrialdiak	608
Osasun Mentaleko Sarea	12
Ospitaleko beste zerbitzu batzuk	20
GUZTIRA	640

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

2. taula. Larrialdietan detektatutako genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte). Bizkaia. 2023

2.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

ERAKUNDE SANITARIOAK	2023
Bilbao-Basurtuko ESI	277
Barakaldo-Sestaoko ESI	119
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	90
Barrualde-Galdakaoko ESI	88
Uribeke ESI	30
GUZTIRA*	608

*Lau kasu Santa Marina Ospitalean detektatu dira. Ospitale hori ez dago inongo erakunde sanitarioan.

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

2.2. Adinaren arabera

ADIN - TALDEAK (URTEAK)	2023
14 eta 19 bitartean	35
20 eta 29 bitartean	163
30 eta 39 bitartean	184
40 eta 49 bitartean	135
50 eta 59 bitartean	60
60 eta 69 bitartean	11
70 eta gehiago	20
GUZTIRA	608

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.



IV. Arloa: OSASUNEKOA

II. LEHEN MAILAKO ARRETAREN datuak

3. taula. Lehen Mailako Arretan detektatutako genero-indarkeriaren biktimen diren emakumeen kasuak (≥ 14 urte). Bizkaia. 2023.

3.1. Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) arabera

ERAKUNDE SANITARIOAK	2023
Barrualde-Galdakaoko ESI	239
Bilbao-Basurtuko ESI	125
Uribeko ESI	108
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	77
Barakaldo-Sestaoko ESI	34
GUZTIRA	583

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.2. Adinaren arabera

ADIN - TALDEAK (URTEAK)	2023
14 eta 19 bitartean	32
20 eta 29 bitartean	107
30 eta 39 bitartean	147
40 eta 49 bitartean	135
50 eta 59 bitartean	75
60 eta 69 bitartean	36
70 eta gehiago	51
GUZTIRA	583

Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.